

Denboraren makina

N A G O R E I R A Z U S T A B A R R E N A


Guinness for strength

DUBLIN (IRLANDA), 1759. Arthur Guinnessk erabiltzen ez zen fabrika zahar bat alokatu zuen Saint James's Gate-n, urteko 45 librarako errentaren truke. Toki gutxi zuen, eta ekipamendu egokirik ez zeukan. Baina Arthurrek bazekien garagardoa egiten. Aita lantegi bateko administratzailea zen; besteak beste, langileentzako garagardoa berak egin behar zuen, eta hala ikasi zuen semeak ofizioa.

Hasieran ale motako garagardoa baino ez zuen egiten, ohiko garagardo horia, alegia. Baina 1770ean ekoizpena dibertsifikatzea erabaki zuen, eta garagardo ilunagoa, apar askokoa, zapore berezikoa egiten hasi zen. Produktu berriaren arrakastak egilea bera harritu zuen. Mendea amaitu baino lehen, gainerako garagardoak baztertu eta edabe iluna egitera bideratu zituen ahalegin guztiak.

XIX. mendean, enpresa Arthur Guinness II.aren eskuetan zela, ekoizpena eta esportazioa izugarri hazi ziren. Europako garagardo ezagunenetakoa bilakatu zen, besteak beste legenda bati esker: 1815ean Waterlooko guduan, zauritutako ofizial bat Guinness edateagatik atera omen zen onik.

1830ean Saint James' Gateko fabrika Irlandako garagardo-fabrikarik handiena zen, eta 50 urte geroago, munduko handiena. 1886an



Goian, Guinnessen bigarren kanpainaren afixa. Azpian, Dublineko fabrika nagusia.

saihesteko konponbidea bururatu zitzaion: Errekorren Guinness liburua sortu zen.

Eta Guinnessk berak, errekorrak biltzeaz gain, hautsi ere egin zituen. XXI. mendean, egunean hamar milioi edalontzi bete Guinness baino gehiago edaten dira munduan.

Londresko Burtsan hasi zen kotizatzen. Fabrikak 24 hektarea hartzen zituen ordurako; 1759an alokatu zutenean bi baino ez zituen.

1890eko hamarkadan Robert Louis Stevensonek Guinness erre-serba nahikoa eraman zuen Mendebaldeko Samoara egindako espedizioa eta, hari ere, garagardo bereziak gripea sendatzen lagundu omen zion. Ernest Shackleton ere Guinness zale amorratua zen, eta hark Antartidaraino eraman zuen edabea. Guinnessak mundu konkistatu zuen.

Etxe barruan, berriz, XX. mendearen hasiera nahasia izan zen. Londresko gobernuaren aurkako gatazka amaituta, 1921ean Irlandako Estatu Librean onartu zuten. Guinness estatu berriaren sinbolo nagusietakoa bilakatu zen berehala; bitxia benetan, enpresak ordura arte britainiarren aldeko jarrera garbia erakutsi zuela kontuan hartuz.

1955ean, enpresaren orduko zuzendari Hugh Beaver ehizan ari zela, eztabaida bizia piztu zen lagunartean: zer hegazti da hegalaria azkarrarena? Orduan, halako eztabaidak

Arrastoak

800.000 urteko mamut hiltegia



Zientzialari talde bat La Boellako aztarnategian lanean.

TARRAGONAKO LA BOELLA aztarnategiak 800.000 urte dituela baieztatu dute berriki. Mamut arrastoak datatuz lortu zuten arrastoen adina jakitea eta, orain, adituen nazioarteko bilera batean, emaitza egiaztatu dute. La Boellako aztarnategiari esker, hominidoek Afrikatik Eura-

siara egindako bigarren migrazioari buruzko ikerketak egin daitezke. Hominidoen eboluzioan funtsezko garaia da hori, ingurumenak aldaketa sakonak izan zituelako eta, ondorioz, gizakiek bizitokiak eta biziraupen estrategiak egokitu behar izan zituztelako.